

Genero indarkeriagatik jarritako salaketak %44 igo dira Nafarroan eta %9 EAEn 2024ko hasieran

AGENTZIAK/LA HAINE :: 19/06/2024

Nafarroan 1.033 salaketa jarri dira (iaz, 717) eta EAEn, berriz, 717 (iaz, 651).

2024ko lehen hiruhilekoan, iazko epe berean baino salaketa gehiago jarri dira genero indarkeriagatik Hego Euskal Herrian, Etxeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokiak zabaldutako datuen arabera. Nafarroan 1.033 salaketa jarri dira (iaz, 717), % 44,1 gehiago, eta EAEn, berriz, 717, % 9,2, gehiago. Hain zuzen ere, Nafarroa da 10.000 emakumeke genero indarkeria tasa altuena duen erkidegoa da estatu mailan.

Halaber, lehen hiruhilekoan, Nafarroako emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegiek 150 babes neurri eskatu dituzte, aurreko urteko epe berean baino % 63 gehiago, eta horietatik 127 onartu dira. EAEn, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiek 244 babes agindu abiarazi dituzte aurtengo lehen hiruhilekoan, 2023ko aldi berean baino % 3,6 gutxiago, eta 153 onartu dira.

Bestalde, urtariletik martxora 96 pertsona epaitu dituzte Nafarroako emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegiek (97 epaitu zituzten iaz epe berean), eta horietatik 94 zigortu dituzte. EAEn, oster, 361 pertsona epaitu dituzte, 2023an baino % 10,4 gehiago, eta horietatik % 96,4 zigortu (-% 0,9).

<https://eh.lahaine.org/genero-indarkeriagatik-jarritako-salaketak-44>